

Parte hartzeko araudia

WORKinn Talent Hub 2024 | Enplegu Foroa (ekainak 5 – 6)

1. art. **Antolakuntza**
2. art. **Ekitaldiaren lekua, datak eta ordutegiak**
3. art. **Onartutako parte hartzaileak**
4. art. **Kontratazioa, tarifak eta parte hartzeko formatua**
5. art. **Erakusketariaren eskubideak**
6. art. **Erantzukizun zibileko aseguruak**
7. art. **Baldintza ekonomikoak eta ordainketari dagozkionak**
8. art. **Kontaktu erabilgarriak**

1. ANTOLAKUNTZA

Honako hauek osatzen dute WORKinn Talent Hub-eko Enplegu Foroaren antolakuntza eta zuzendaritza: Bilbao Exhibition Centre SA (BEC) eta Makina-erreminten, Osagarrien, Osagaien eta Tresnen Fabrikatzaileen Elkartea (AFM). Komunikazio guztiak hona bidaliko dira:

BILBAO EXHIBITION CENTRE, SA
WORKinn Talent Hub

Azkue kalea, 1
E- 48902 Barakaldo

Tel.: +34 944 040 051 / 944 040 109

workinn@bec.eu

www.workinn.es

2. EKITALDIAREN LEKUA, DATAK ETA ORDUTEGIA

WORKinn Talent Hub Bilbao Exhibition Centren - BEC egingo da, Ansio-Barakaldon (Bizkaia), 2024ko ekainaren 5ean eta 6an. 09:30etik 17:00etara egongo da zabalik bisitariarentzat etenik gabe, eta 08:30etik 18:00etara erakusketariarentzat.

Bisita-ordutegian, standetan arreta eskainiko da.

3. ONARTUTAKO PARTE HARTZAILEAK

Foroaren helburu diren sektoreetan sartutako jarduerak bideratzen dituzten enpresa guztiek eskatu ahal izango dute bertan parte hartzea:

- Sektore industrialetako enpresak eta horiekin zerikusia dutenak
- Unibertsitateak
- Lanbide-heziketako zentroak
- Aldi baterako lanerako enpresak (ETT) eta giza baliabideen aholkularitzak
- Garapen-agentziak eta enplegu-agentziak
- Babesleak

4. KONTRATZIOA, TARIFAK ETA PARTE HARTZEKO FORMATUA

Kontratazioa

Kontratazioa egin ahal izateko, Enplegu Foroaren Zuzendaritzari bidali behar zaio **parte hartzeko eskaria** behar bezala beteta. Horrez gain, **500 € + % 10eko BEZaren aurrerakina** ordaindu beharko da. Gero, 7. artikulua ezarritako parte hartzeko zenbateko osotik kenduko da kopuru hori. Beste kontratazio mota oro ez da baliozkotzat joko.

Parte hartzeko eskaerak jasotzeko **epea 2024ko apirilean 5ean** amaituko da.

Eskariaren eta libre dagoen espazioaren arabera hartuko dira aintzat eskaerak.

Antolakuntzak eskubidea du esleitutako azalera edo kokalekua aldatzeko, baldintzek hala eskatuko balute, eta horrek ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

Zerbitzuen kontratazioa: zerbitzuen kontratazioa webguneko erakusketarien eremu pribatuaren bidez egin daiteke, aurrez emandako "erabiltzaile-izena" eta pasahitza erabilita.

Tarifak eta parte hartzeko formatua

Modulu trianguluarra – Azalera: 4 m²



- 1 mahai baxu eta 2 besaulki
- Bereizteko hormak, logotipoa inprimatuta, PVCan
- Instalazioa, kontsumo elektrikoa eta 5 kw-ko entxufea
- LED argiztapena
- Moketa
- Aldi bereko bi WiFi konexio
- Standaren eguneroko garbiketa
- Erantzukizun zibileko aseguru

2024/04/05 arte

- 1.700 €- BIEMH, ADDIT3D, BeDIGITAL 2024ko enpresa erakusketariak
- 1.950 €- Beste enpresa eskatzaile batzuk

2024/04/06tik aurrera

- 1.950 €- BIEMH, ADDIT3D, BeDIGITAL 2024ko enpresa erakusketariak
- 2.250 €- Beste enpresa eskatzaile batzuk

Prezioei % 10eko BEZa aplikatuko zaie.

Zerbitzuen kontratazioa

Zure standerako behar dituzun aukerako zerbitzuak kontratatzeko, hona jo behar duzu zuzenean:

serviciosworkinn@bec.eu

5. ERAKUSKETARIAREN ESKUBIDEAK

Kontratatutako azaleraz eta standaz gain, zure partaidetzak honako zerbitzu hauek hartzen ditu barne, kostu gehigarriarik gabe:

- "Erabiltzailea" eta "Pasahitza" parte hartzaileen gune pribatura sartzeko, www.workinn.es web orrian.
- Erakusketariaren akreditazioak. Parte hartzaileen Gune Pribatuan eskatu beharko dituzu ekitaldia baino lehen, BECera errazago sartu ahal izateko.
- Enpresa parte-hartzaileen online direktorioa. Parte hartzaileen gune pribatura sartzeko "erabiltzailea" eta pasahitza erabiliz:
 - Logoa, irudia eta jardueraren deskribapena sartu.
 - Zure enpresaren profileko datuak eguneratzea eta osatzea.
 - Lan-eskaintzak argitaratzea.
- Sustatu zure parte-hartzea. WORKinn Talent Hub-en logoa deskargatu webgunean eta zure komunikazioetan sartu ahal izango duzu, Enplegu Foroan duzun presentzia nabarmentzeko.

6. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

BECek ekitaldi honetarako kontratatuko duen erantzukizun zibileko aseguruak honako oinarrizko baldintza hauek izango ditu, BECen Parte Hartzeko Araudi Orokorraren 33. artikuluan arabera:

- Oinarrizko estaldura: Ekitaldiaren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte materialak eta korporalak; berariaz, alde batera uzten da erakusmahaiko langileen (erakusketariaren mendeko langileak eta/edo hark azpikontrataturako langileak) lan-istripuen ondoriozko erantzukizun zibila.
- Kalte-ordainen muga: 1.200.000 € ezbehar bakoitzeko eta ekitaldian gertatutako ezbeharren multzorako.

Gainera, erakusketariak aseguru gehigarriak izan beharko dituzte ondasunak edukitzeko, erakusteko edo erabiltzeko, haien legedi espezifikoak hala eskatzen duenean.

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA ORDAINKETARI DAGOZKIONAK

Hauek dira parte hartzeko baldintza ekonomikoak:

Aurrerakina ordaintzea

Parte hartzeko eskaerarekin batera, erakusketariak **500 € + BEZari dagokion % 10eko** ordainketa egin beharko du aurrerakin gisa. Hori, gero, partaidetzaren guztizko zenbatekotik deskontatuko da. **Gainerako zenbatekoa 2024ko maiatzaren 6a baino lehen** ordaindu beharko da.

Fakturaren epemuga

Ekitaldian parte hartzeari dagokion **guztizko zenbatekoak** ordainduta egon beharko du **2024ko maiatzaren 6a baino lehen**. 2024ko maiatzaren 6aren ondoren jasotako izen-emateak erakusketariari bere kokalekua jakinarazi ondoren fakturatuko dira eta ordainketa berehalako epemugarekin egin beharko da banku-transferentzia bidez.

Ordainketak transferentzia edo bankuko helbideratze bidez egingo dira. Ordaintzeko hautatutako aukera parte hartzeko eskaeran zehaztu beharko da. **Banku-helbideratzea eskatzeko azken eguna: 2024ko maiatzak 3.**

Partaidetza ezeztatu nahi izanez gero, idatziz jakinarazi beharko duzu helbide honetan: workinn@bec.eu

Kasu honetan, erakusketariak ordaindutako zenbateko guztiak galduko lituzke.

8. KONTAKTU ERABILGARRIAK

Sail komertziala:

- ☎ +34 94 40 40 00 51
- ☎ +34 94 40 40 01 09
- ☎ +34 94 40 40 00 94
- ✉ workinn@bec.eu

Zerbitzu teknikoak:

- ☎ +34 +34 94 40 40 00 (luz.: 4)
- ✉ serviciosworkinn@bec.eu

Administrazioa:

- ☎ +34 94 40 40 01 23
- ✉ administracion@bec.eu

Bisitarien Sailer:

- ☎ +34 +34 94 40 40 00 (luz.: 2)
- ✉ visitantes@bec.eu

Akreditazioak:

- .
- ✉ acreditaciones@bec.eu